

Jazza eta erritmo afrokubatarrak batu ditu Gaztelurrutiak 'Walk'-en

'The Road Less Traveled' liburuan oinarritu du diskoa • Aurkezpen kontzertuak prestatzen ari da

Gorka Berasategi Otamendi

Mugimendua eta bizitasuna dakartzan Mikel Gaztelurrutia piano joleak (Eibar, Gipuzkoa, 1970) bere azken lanean. *Walk* izena du diskoak, eta horixe proposatzen du: ibilia, bidaia, musika afrokubatarraren erritmora. Kontrabaxua eta perkusioa lagun, jazzaren inprobisazio askea uztartu du guaracha eta manbo erritmoekin. Abestiak idazteko inspirazio iturri izan du Morgan Scott Peck psikiatra estatubatuarren *The Road Less Traveled* liburua.

Hiru zutabe ditu *Walk* diskoak, egilearen esanetan: pianoaren, kontrabaxuaren eta perkusioaren arteko jostura; Gaztelurrutiaren konposizio originalak, eta erritmo afrokubatarrak.

«Musika erritmikoak asko gustatzen zaizkit, eta banuen gogo horrelako disko bat ateratzeko, erritmo mota desberdinekin». Musika afrokubatarraren erritmo aberastasuna eta bizipoz azpimarratu ditu Gaztelurrutiak.

Erritmo horien lanketarako, aipatzeko da Michael Oliverak perkusioan –bateria eta kongak– egin duen ekarpena. «Kuba aldeko erritmoak berezkoak zituen bateria bat behar nuen, eta Michael agertu zen». Toño de Miguel kontrabaxuak, berriz, urteak daramatza Gaztelurrutiarekin lanean, eta hainbat proiektutan parte hartu dute elkarrekin. «Lan interesagarria izan da. Hirurok maite dugu musika afrokubatarrak, eta, alde horretatik, oso erraza izan da. Uste dut lan fina egin dugula, eta emaitza pentsatua genuen bezalakoa izan da».

Pianoa da diskoaren protagonista nagusia, eta, jazz modernoaren armonien baitan, inprobisazioak hartzen du lanaren zatirik handiena. Melodia eta girotze landuetatik abiatuta, solo bizi eta askeak osatu ditu Gaztelurrutiak.

Bizitzan ere, inprobisazioa

Bizitzaren eta musikaren arteko paralelotasuna da diskoaren gai nagusia. «Bizitzan erritmoa dago, denbora aurrera doa, eguneroko gertatzen zaizkigu gauzak».



Mikel Gaztelurrutia pianistak bi lan ditu plazaratuak bakarka. BERRIA

Jazzaren inprobisazioan gertatzen den bezala, bizitzan ere uneko erabakiak hartu behar izaten dira, Gaztelurrutiaren esanetan. «Ikuspuntu psikologiko batetik, inprobisatzea da era-

bakiak hartzea». Bizitzan, beraz, jazzean gertatzen den moduan, ibilian egiten da bidea.

Hain zuzen, ideia hori ardatz duen *The Road Less Traveled* liburuan oinarritu du diskoa pia-

nista eibartarrak. Morgan Scott Peck psikiatra estatubatuarren kontzeptu nagusietako bati esker dio *The Grace* kanta, entzulea edertasun eta atsegini giroan biltzen duena. «Grazia denok sor-

dezakegun iluminaziozko egoera da, baina [Scott Peckek] esaten du ez dugula haren bila joan behar. Denok nahi dugu ongizate batean bizi, gure energiarekin konektatu, eta, horretarako, lana egin behar dugu; baina egoera hori zuzenean bilatzearekin tematu gabe».

Alpha, Gamma & Omega abestia, berriz, Javier Gorosabel Urkia astronomo eibartar eta lagunari eskaini dio –2015ean zendu zen–, eta «izarren, galaxien eta nebulosen mundua» iradokitzen du. «[Gorosabelek] Garrez bizi eta pasioz kutsatzen zuten» hura.

Diskoa ezagutzera emateko eta kontzertuak lotzeko lanetan dabil Gaztelurrutia orain. Aurkijakinazko dituen hurrengo aurkezpen emanaldien data bere webgunean: www.mikलगaztelurrui.com.

Pianoa da diskoaren protagonista nagusia, eta inprobisazioak hartzen du lanaren zatirik handiena

tia.com. Helbide horretan, entzungai daude *Walk* diskoak abestien zatiak, diskoa erosteko aukera ere bada, eta bere ibilbideari buruzko informazioa aurkitu daiteke.

Walk Gaztelurrutiak bakarlari modura argitaratu duen bigarren diskoa da. Aurretik, *The New Jazz Voices Ensemble* (2009) argitaratu zuen, berak gidatutako hirukotearekin eta ahots laukote batekin. Bestalde, *Brazilian Sextet* eta *Ante Meridiem Duo* proiektuetan parte hartu du, eta Becky Sigel koreografo estatubatuarren *Yo!* laneko musika arduradun izan zen, dantza garaikidea eta jazz inprobisazioa uztartu zituen proiektuan.

Aurkezpen kontzertuak prestatzearekin batera, hurrengo lanean murgilduta dago Gaztelurrutia. Beste disko bat prestatzen ari da, piano bakarlari modura.

berria laguna

Menfis
DEKORAZIOA

Loiolako Inazio hiribidea, 21
AZPEITIA
Tel.: 943-81 69 76
menfis-azpeitia@hotmail.com

Kortinako • Estoreak
Kortinoiak • Koltzak • Edredoiak • Nordikoak • Pertsianak • Alfonbrak

Aurrekontuak doan egiten dira



Olagi Sagardotegia
Nekazaturismoa



Larunbatetan,
autobusa

Lazkaotik (20:30ean abiatzen da),
Besaindik eta Ordizitik. 5 euro.

Urte osoan zabalik

olagi.altzaga@gmail.com • 943-88 77 26 • ALTZAGA